

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN,
MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

2020an Vitoria-Gasteizko udalerrian enpresak sortzeko laguntza ekonomikoak emateko udal programari dagozkion eskabideak ebaztea

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1 eta 4 artikuluetan xedatutakoarekin ildotik, iragarki honen bitartez jakinarazten zaie interesdunei Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak 2020ko abenduaren 9an emandako ebazpena, zeinaren bidez Vitoria-Gasteizko udalerrian 2020. urtean enpresak sortzeko laguntza ekonomikoak emateko udal programa ebatzi baitzuen. Hauxe da ebazpenaren edukia:

“Tokiko Gobernu Batzarraren 2019ko abenduaren 9ko erabakiz onetsi ziren Vitoria-Gasteizko Udalaren 2020ko dirulaguntzetarako deialdia arautzeko oinarri orokorrak; horien artean, 26. ildo, Merkataritza Zerbitzuarena, “Enpresak sortzeko laguntzak” izeneko (2019ko abenduaren 23ko ALHAO, 147. zenbakia).

2020ko martxoaren 13an egindako bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Vitoria-Gasteizko udalerrian enpresak sortzeko laguntzak emateko udal programaren 2020ko deialdi publikoa eta hura arautzeko berariazko oinarriak.

Ebazpen hura ez zen argitaratu, administrazio-epeak bertan behera geratu baiziren, eta etenda, COVID-19ak eragindako krisi sanitarioa kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoa betez. Geroago, 2020ko maiatzaren 29an, laguntza-deialdi hori arautzen zuten berariazko oinarriak aldatzea onetsi zuen Tokiko Gobernu Batzarrak (2020ko ekainaren 22ko ALHAO, 65. zenbakia); laguntzak emateko prozedura norgehiagoka izan da, 126.700,00 euroko hasierako zuzkidurarekin, 2020rako onetsitako aurrekontuko 0822.4314.489.64 partidaren kontura.

2020ko urriaren 23an egindako bilkuran, Tokiko Gobernu Batzarrak Vitoria-Gasteizko udalerrian enpresak sortzeko laguntza ekonomikoak emateko udal programaren 2020ko deialdia finantzatzeko baliabide ekonomikoak 18.602,21 euroan handitzea onetsi zuen. Horrenbestez, aipatutako laguntza-programara bideratutako baliabide ekonomikoak 145.302,21 euro izango dira guztira.

Eskabideak aurkezteko epea 2020ko uztailaren 17an amaitu zelarik (deialdiko 7. oinarria), 2020ko abenduaren 3ko idazki baten bitartez jakinarazi zuten Merkataritza Zerbitzuko teknikariek hirurogeita lau (64) eskabide jaso zirela epe barruan, horietatik hogeita bostek (25) ez zituztela betetzen deialdiaren betekizunak, eta gainerakoak barematuko zituztela. Halaber jakinarazi zuten bi eskabide (2) epez kanpo aurkeztu zirela.

Eskabideak aztertu ondoren, hautatze eta jarraipen batzordeak 2020ko abenduaren 4an egindako bilkuran analizatu eta eztabaidatu ziren (8. oinarria); deialdiko betekizunak betetzen zituztela egiaztatu eta barematu ondoren, deialdia ebazteko proposamena helarazi zitzaion Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariari, honen arabera: batetik, hogeita hemeretzi (39) eskabideri laguntza ematea, oinarri arautzaileen arabera dagokien zenbatekoan, eta deialdiaren zuzkidura ekonomikoa agortuta; bestetik, gainerako hogeita zazpi (27) eskabideak ezestea, deialdiaren betekizunak ez betetzeagatik, horietako bi (2), epez kanpo aurkezteagatik.

Deialdian ezarritako prozeduraren arabera, eta Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko martxoaren 13an eskumenak eskuordetzeaz hartutako erabakiaren ildotik, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak du eskabideak ebazteko eskumena.

Horrenbestez, udal aurrekontuetan nahikoa kreditu-zuzkidurarik badagoenez, hautatze eta jarraipen batzordeak egindako proposamena aintzat harturik eta eskumenak eskuordetzeko 2020ko martxoaren 13ko erabakia dela medio, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak hau,

Ebatzi du

Lehena. Deialdiaren oinarrietan ezarritako betekizunak ez dituztela betetzen egiaztatu ondoren, 2020an Vitoria-Gasteizko udalerrian enpresak sortzeko laguntza ekonomikoak emateko udal programan eskatutako dirulaguntzak ukatzea honako hauei, adierazitako arrazoiengatik:

ENPRESA	EZ EMATEKO ARRAZOIAK
72739614K	4. oinarria: gutxieneko inbertsiorik ez
B01663004	4. oinarria: justifikatu gabeko gastuak
B01580711	4. oinarria: gutxieneko inbertsiorik ez 10. oinarria: gutxieneko puntuaziorik ez
44683232M	4. oinarria: gutxieneko inbertsiorik ez
72749322T	4. oinarria: gutxieneko inbertsiorik ez 10. oinarria: gutxieneko puntuaziorik ez
44679534X	10. oinarria: gutxieneko puntuaziorik ez
B86316882	4. oinarria: gutxieneko inbertsiorik ez 10. oinarria: gutxieneko puntuaziorik ez
J01576669	"4. oinarria: gutxieneko inbertsiorik ez 7. oinarria: eskabidea epez kanpo aurkeztea 10. oinarria: gutxieneko puntuaziorik ez"
Y4313675Q	3. oinarria: jarduera ez dago EJZn alta emanda
58068559E	3. oinarria: EJZren alta gabe
B01581156	3. oinarria: jarduera ez da diruz laguntzekoa
J01582568	3. oinarria: jarduera ez da diruz laguntzekoa
B01054899	4. oinarria: EJZko alta data diruz laguntzeko dataren aurrekoa da
B01658251	3. oinarria: jaurdiera ez dago EJZn alta emanda 4. oinarria: justifikatu gabeko inbertsioa.
B01552181	4. oinarria: EJZko alta data diruz laguntzeko dataren aurrekoa da
B01573013	4. oinarria: gutxieneko inbertsiorik ez
18600429F	4. oinarria: EJZko alta data diruz laguntzeko dataren aurrekoa da
B01575349	3. oinarria: ez da mikroenpresa
B01561752	"3. oinarria: ez da mikroenpresa 7. oinarria: eskabidea epez kanpo aurkeztea"
F01567809	4. oinarria: gutxieneko inbertsiorik ez
B01544626	4. oinarria: gutxieneko inbertsiorik ez
J01546852	4. oinarria: gutxieneko inbertsiorik ez
72833930Z	4. oinarria: gutxieneko inbertsiorik ez
B01571934	4. oinarria: gutxieneko inbertsiorik ez
B01582451	4. oinarria: gutxieneko inbertsiorik ez
B01570126	4. oinarria: gutxieneko inbertsiorik ez
B01566033	4. oinarria: gutxieneko inbertsiorik ez
Guztira	27 eskabide ukatuta

Bigarrena. Deialdian ezarritako betekizunak betetzen dituztela egitaztatu ondoren, eta deialdiaren 10. oinarrian ezarritako gutxieneko 50 puntuak gainditu dituztelarik, 2020an Vitoria-Gasteizko udalerrian enpresak sortzeko laguntza ekonomikoak emateko udal programaren barruan dirulaguntza ematea jarraian adierazten diren eskatzaileei, diru laguntza jaso dezaketean arloetan egiaztatu dituzten inbertsioengatik, 4. eta 5. oinarrietan adierazitakoaren ildotik; horrek deialdiaren zuzkidura ekonomikoa agortuko du:

ZENBAKIA	ENPRESA	BALORAZIOA					DIRU-LAGUNTZA JASO DEZAKEEN INBERTSIOA	EHUNEKOAK	DIRU-LAGUNTZA TEORIKOA	EMANDAKO DIRU-LAGUNTZA
		1. IRIZPIDEA	2. IRIZPIDEA	3. IRIZPIDEA	4. IRIZPIDEA	GUZTIRA				
1	B01584382	30	30	15	9	84	9.367,61 euro	40	3.747,04 euro	3.747,04 euro
2	72750667B	30	25	15	9	79	9.199,56 euro	37,06	3.409,36 euro	3.409,36 euro
3	B01580992	25	20	10	20	75	25.185,92 euro	34,71	8.742,03 euro	8.000,00 euro
4	J01559129	25	20	20	10	75	10.787,19 euro	34,71	3.744,23 euro	3.744,23 euro
5	B01564764	25	20	10	19	74	19.294,60 euro	34,12	6.583,32 euro	6.583,32 euro
6	13150028P	25	20	10	17	72	17.127,27 euro	32,94	5.641,72 euro	5.641,72 euro
7	B01553833	20	25	20	7	72	7.474,69 euro	32,94	2.462,16 euro	2.462,16 euro
8	25464975L	30	30	5	6	71	6.671,31 euro	32,35	2.158,17 euro	2.158,17 euro
9	16303425J	20	25	5	20	70	30.000,00 euro	31,76	9.528,00 euro	8.000,00 euro
10	B01579226	20	20	10	20	70	25.782,98 euro	31,76	8.188,67 euro	8.000,00 euro
11	B01568922	15	20	15	20	70	37.520,20 euro	31,76	11.916,42 euro	8.000,00 euro
12	B01569953	5	30	15	20	70	281.900,00 euro	31,76	89.531,44 euro	8.000,00 euro
13	B01581883	25	20	15	8	68	8.033,85 euro	30,59	2.457,55 euro	2.457,55 euro
14	B01585348	20	25	15	8	68	8.514,47 euro	30,59	2.604,58 euro	2.604,58 euro
15	B01572783	25	20	15	7	67	7.271,05 euro	30	2.181,32 euro	2.181,32 euro
16	B01587955	20	25	15	6	66	6.429,08 euro	29,41	1.890,79 euro	1.890,79 euro
17	B01570944	20	15	10	20	65	24.584,89 euro	28,82	7.085,37 euro	7.085,37 euro
18	B01580208	10	15	20	20	65	44.155,04 euro	28,82	12.725,48 euro	8.000,00 euro
19	B01578277	25	20	10	9	64	9.637,50 euro	28,24	2.721,63 euro	2.721,63 euro
20	Y4967018K	25	20	5	14	64	14.559,04 euro	28,24	4.111,47 euro	4.111,47 euro
21	72731777G	20	20	5	18	63	18.105,51 euro	27,65	5.006,17 euro	5.006,17 euro
22	B01583020	25	20	10	7	62	7.396,71 euro	27,06	2.001,55 euro	2.001,55 euro
23	46978333M	30	20	5	6	61	6.428,11 euro	26,47	1.701,52 euro	1.701,52 euro
24	16292096T	20	15	5	20	60	42.265,00 euro	25,88	10.938,18 euro	8.000,00 euro
25	B01568625	15	20	20	5	60	5.279,87 euro	25,88	1.366,43 euro	1.366,43 euro
26	B01581818	25	15	10	8	58	8.683,99 euro	24,71	2.145,81 euro	2.145,81 euro
27	B01582253	20	20	10	7	57	7.390,35 euro	24,12	1.782,55 euro	1.782,55 euro
28	B01569409	15	10	20	12	57	12.716,00 euro	24,12	3.067,10 euro	3.067,10 euro
29	B01580232	20	15	15	6	56	6.889,52 euro	23,53	1.621,10 euro	1.621,10 euro
30	18600075K	20	25	5	5	55	5.372,69 euro	22,94	1.232,50 euro	1.232,50 euro
31	13301276P	25	15	5	9	54	9.930,84 euro	22,35	2.219,54 euro	2.219,54 euro
32	71125502A	15	20	10	8	53	8.331,83 euro	21,76	1.813,01 euro	1.813,01 euro
33	72748917D	20	20	5	7	52	7.334,33 euro	21,18	1.553,41 euro	1.553,41 euro
34	B01582261	15	15	10	12	52	12.051,86 euro	21,18	2.552,58 euro	2.552,58 euro
35	J01586478	15	15	10	12	52	12.872,71 euro	21,18	2.726,44 euro	2.726,44 euro
36	B01587484	20	20	5	6	51	6.807,60 euro	20,59	1.401,68 euro	1.401,68 euro
37	X8567010Q	25	15	5	5	50	5.130,00 euro	20	1.026,00 euro	1.026,00 euro
38	B01583558	20	20	5	5	50	5.566,00 euro	20	1.113,20 euro	1.113,20 euro
39	B01584317	10	15	5	20	50	20.864,44 euro	20	4.172,89 euro	4.172,89 euro
Guztira							812.913,61 euro			145.302,19 euro

Hirugarrena. Emandako dirulaguntza horien guztien zenbatekoa (145.302,21 euro) 2020an Vitoria-Gasteizko udalerrian enpresak sortzeko laguntza ekonomikoak emateko udal programaren kontura jasota uztea, eta horiek onuradunei ordaintzea, deialdiaren 12. oinarrian ezarritakoarekin bat etorriz.

Laugarrena. Enpresen udal Zerbitzuko teknikariak izendatzea diruz lagundutako enpresa-proiektu horien tutoretza eta jarraipenaren arduradun.

Bosgarrena. Dirulaguntzen onuradunek deialdiaren oinarrietan ezarritako betebeharrak betetzen ez badituzte, laguntza horiek bertan behera utzi ahalko dira, eta laguntza osoa edo zati bat ordainduta badago jasotako laguntza itzultzeko eskatuko zaie.

Seigarrena. Erabaki hau udalaren webgunean eta ALHAOn argitaratzea.

Zazpigarrena. Laguntza-eskatzaile guztiei ebazpenaren berri ematea, eta jakinaraztea horren kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko dutela zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik.

Aukeran, horren aurretik, berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahalko da deialdia onetsi duen organoari berari zuzendurik, hilabeteko epean, iragarki hau jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatuta. Errekurtso hori ezesten bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean errekurtsoa ezesteko ebazpenaren jakinarazpena espresua bada, edo administrazioaren isiltasunak ondorioak dituen egunaren biharamunetik aurrera ezespena ustezkoa bada”.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko abenduaren 16an

*Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren
eta Turismoaren Saileko Administrazio Orokorreko teknikaria
LEIRE GÓMEZ ALCALÁ*